



Xabier Kintana

Ibarretxe lehendakariaren proposamena

J.J. Ibarretxe lehendakariak Euskal Herriaren etorkizun politikoa berregituratzeko proposamena dukegu aurtengo gertakaririk garrantzitsuena. Hor Euskal Herriarentzat Espainiar Estatuarekiko borondatezko atxikimenduzko formula azaltzen da, eta erabakimena euskal herritarron esku gelditzen denez gero, *de facto* gure autodeterminatzeko eskubidearen erabilera bermatzen da.

Zentzuzko proposamena dirudi. Batetik, ez du oraingo Estatua zatitzen, baina bere osakideen artean berdinen arteko harreman orekatuak ezarri nahi ditu, orain arte espainol gaztelauek, hots, espainol-espainolek beste nazioetako gainean izandako nagusikeri estatusa hautsiz. Proposamen horiek, jakina, aldean Estatuaren nazioaniztasuna onartzea dakar, katalan-galegoek ere begi onez ikusia. Guri dagokigunez, nafarrekin eta iparraldekoekin kulturaren, ekonomian eta politikan lotura bereziak izateko aukera ematen du, betiere, bestela ezinean, haiek horrela nahi izanez gero.

Ezker Batuak ongi azpimarratu duenez, Ibarretxeren proposamena berek aspaldidanik aldarrikaturiko atxikimendu askeko federalismora biziki hurbiltzen da eta, neurri handiz, euskaldun askoren helburuak ase ditzake.

Proposamenak ez dakarkigu independentzia, egia da, baina oraingo autonomi egoeratik jauzi handia egiten du, erabakimen-esparrua euskal herritarrengan uzten baitu, etorkizunean, orain proposatzen den formula berri honek hiritarrok asebeteko ez bagintu, bestelako irtenbideak hautatzeko atea zabalik utzirik.

Proposamenaren mamian xeheki sartu gabe ere, argi dago orain baino autogobernu maila handiagoa lekarkigukeela, geure naziotasunaren onespena, kultur, kirol eta ekonomi arloan nazioarteko foroetan geure nortasun pro-

pioaz agertzeko eskubidea, eta hori ez da gutxi nazioa eraikitzeko ahaleginean.

Horregatik, proposamena ez zaie gustatu, gure artean bizi izan arren, euskaldun sentitzen ez direnei, hots, (vasco)-espainolei. Politikan aukera guztiak erespeta garriak izanik ere, begien bistan dago aukera bakoitzak alde bere esangura berezia dakarrela, bera aukeratzen duenaren interes eta sentimenduak argi salatzen dituelako. Alde horretatik, galdetzekoa da, noski, ea munduan zeinek nahi duen bere herriarentzat autogobernu urriago eta inoren menpeko izan nahi, hots, dependente izan. Izan ere, (vasco)-espainol horien kezka argia da: beren oraingo hegemoni egoeran, Euskal Herrian ere Estatu Zentralak beraiek ordezkatzeko eta babesten dituela sentitzen dute, eta ez lukete nahi euskaldunek (hots, euskaldun-euskaldunek edo euskaldun soilek) orain arte berek ez bestek gozatzen dituzten pribilegioak ere berdintasunez lortzea: hizkuntz eskubideak, naziotasunaren aitormena, nazioarteko ordezkaritza, erabakimena, nagusitasun etnikoa etab.

Horrela ulertu behar da, adibidez, orain arte, lauzpabost salbuespen jakinak alde batera utzirik, PSE-EEko eta PSNko kideek, PPrekin batera, Ibarretxeren proposamenaren aurka lau haizeetara darabilten difamazio-kanpaina. Rosa Diezek, bere alderdiaren onespenez, europar mailara eramane duen engainuzko jukutria zitaleraino helduz.

PPz ez dago zer esan handirik, berauek, bai Euskal Autonomia Erkidegoan eta bai Nafarroan, beti argi utzi baitute beren antieuskalduntasuna. Bestalde, Espainian botere zentrala daukate eta begien bistan dago Euskal Herriak lortuko lituzkeen eskumen handiagoak berek galdu beharko lituzketela. Hori dela eta, boterera heldu zirenetik, jo eta ke aritu dira espainolen artean nazionalismo erreakzionarioenaren haziak ereiten, frankismo garaiko balioak eta nostalgiak berpizten, jende horien iritzi publikoa edonolako joera federalistaren kontra ager dadin, eta joko horretan, botorik ez galtzeko, PSOE bera bete-bete harrapatu dute.

Beraz, argi dago Estatuko indar politiko nagusiei dagokienez, harrera eta onarpen eskasa ukan behar zuela lehendakariaren proposamenak. Berak, ordea, zuhurki, edo

nahiago bada, noraezean, euskal herritarron atxikimenduaren karta jokatu nahi izan du. Horrexetarako deitu ditu bertoko alderdi, erakunde, elkarte eta indar biziak, bere proposamena azaltzera eta bera eztabaidatzera gonbidatzeko, iradokizun bila. Jakin, ondo baitaki, proposamen hori hemen kontsentsu handiz onetsiz gero, Madrilek bi aldiz pentsatu beharko lukeela bera bertan behera uztea, bestela demokrazia zapaldu eta herri oso bat (hiru, galego eta katalanen solidaritateaz) bere aurka edukiko lukeelako.

Ez da harritzekoa, beraz, kontsentsu eta herri-atxikimendu hori nola edo hala hausteko, PPK eta PSOEek era guztietako bideez (enpresaburuen aldeko aurkaritza bultzatuz, Europako Batasunari kontura ez datozen diktamenak eskatuz, enpresek hemendik alde egingo dutelako zurrumurru-presioak eta era guztietako gezurrak barreiatuz) kanpaina etengabea egitea, hortxe baitute puntu ahula.

Erasoa baina, ez datorkigu, soilik, indar espainolistengandik. Aurkakoa etxean ere badaukagu: Batasunaren maximalismo miopea, etengabeki dena ala ezer ez proposatu eta, orain arteko praktikak erakutsi digunez, beti, antzuki, ezerezean gelditu zaiguna. Inora ez garamatzen dogmatismo itsu horrek, politika zer den, eta elkarren ondoko epeen eta zentzuzko pazientziaren komenientzia zertzuk diren oraindik ikasi ez dutenen jokabide heldugabe bezain suizidak, berriz ere, espainolista eta antieuskaldunen politikarekin bat egingo du, gure giroa are nahasiago eginez.

Egia da, oraintsu esan denez, Legebiltzarrean adostasunerako gehiengorik ezaz ere erreferendumera eraman daitekeela proposamena, baina zalantzarik gabe, horrek askoz ere indar handiagoa luke, bai boto-emaileen iritzia gidatzeko eta bai nazioarteko foroetan oihartzun handiagoa izateko ere, aurretik gure parlamentuak berretsia balu, eta gaurko indarren korrelazioan hori ez da gertatuko Batasunak, gutxienez, abstentziorik egiten ez badu.

PP eta PSE-EErekin batera ezezkoa emanaz gero, proposamena ez da Gasteizko Ganberatik, ate nagusitik bederen, aterako; eta, horrela, gure «etxeko adiskideei esker» Madrilgo etsaiek buruko min ederra kenduko dute gainetik, euskaldunok geure artean autogobernu handiagoa es-

katzeko ere bat ez gatozela argudiatuz. Geroak esango. Orain arte ikusirikoen argitan ezkor xamarra naizela aitortu behar, etxe barruan horrelako adiskideak izanik euskaldunok ez baitugu kanpoko etsairik behar.

Unai Elorriaga saridun

Zalantzarik ez, literatur arloan berri ona izan dugu aurreten euskaldunok. Unai Elorriaga bizkaitar idazle gazteak Espainiako Literatur Sari Nazionala jaso du eta, gure demografi eremu txikia kontuan izanda, geure buruari zorionak eman behar dizkiogu. *SPrako tranbia* eleberria irakurria dut eta biziki gustatu zaidala aitortu behar. Bai gaia eta bai kontatzeko era ere ezohikoak dira eta euskal literatura gehiago aberasteko mugari interesgarriak inuitzen zaizkit. Saria jasotzeak, bestalde, lehenago Bernardo Atxagarekin gertatu zen bezala, gure literaturaren osasun ona mundu zabalean ezagutarazteko balio izan dezake, euskaldunoz hortik zehar esaten diren gauza gehienak maizegi terrorismoaz eta difamazio interesatuaz nahasirik agertzen direlako. Gure herriaren eta jendearen izenaren onerako izango ahal da oraingoa!

Saritua nongoa eta Euskal Herriaren Mendebaldekoa izatea ere berri pozgarria da, sarriegitan bai baitirudi gure literatur sorkuntza guztia eta harrobi bakarra Donostia inguruan dagoela; eta, horregatik, errealitatearen oreka mantentzeko, on da, ene ustez, gure periferian ere euskalgintzan aspalditik egiten ari den lan neketsuak, aldizka bederen, bere fruituak agertzea.

Madriren Saria nori eta Unai Elorriagari, hots, euskaldun idazle bati, eman zitzaiola jakin nuenean, aitortu dut berehala susmo txar bat ukan nuela, hau da, ez ote zen oraingoa ere berriz garaile gertatu Galeuscaren solidaritatea.

Euskaltzaindiak bidalita, Madrilera maiz joan behar izan dut Ministerioak antolatzen dituen Literatur Sariaketan parte hartzera, eta eskarmentuak hala erakutsita, aski garbi ikusikasiasa dut zein izaten den, gehientsuetan, horrelako lehiaketan bilakabidea: lehenbiziko botazioetan

nork bere gogoko egile edo obrari ematen dio botoa, norbere hizkuntzakoei bereziki, baina horregatik besteak erdeinatu gabe. Botazioak aurrera joan eta hautagaien kopurua urritu ahala, ordea, galego-katalan-euskaldunok, hitzik gabeko akordio ez idatzi misterioetsuren bati jarraikiz, gure arteko obra edo idazle botatuenari eskaini ohi diogu geure botoa, irabazteko aukera txikiagoa duten etxekoak baztertuz. Horrek, gehienetan, finalisten artean beti euskaldun, galego edo katalan bat egoteko bidea ematen digu, gaztelaniazkoaz gainera, inguruko literaturak ere goraiatzeko posibilitateaz.

Gaztelauen artean ere, zertarako uka, beti egoten da norbait literatura periferikoren bati azken aurreko botaziora arte boza ematen dionik, baina, ehunetik laurogeita hemeretzi alditan, azken eta behin betiko botazioan, boto horiek gaztelau obren alde lerratzen dira, mesetakoak ez direnak gupidagabeki ahantziz. Inoiz, ordea, aukerak polarizatu egiten dira eta gaztelau idazle biren arteko sokatira bizia azal daiteke, bakoitzak aldean adiskide eta editorial ezagunen interesak dituela, eta kasu horretan, batak besteari amore —hots, ospea, saria eta editorial-irabazi ez txikiak— emateko gogorik ezak, batzuetan botoak periferiako baten alde desbiderarazten ditu, erdarazko «ez zuretzat ez niretzat» hori betez. Hori dela eta, erdaldunen arteko lehiakidetzak eta bekaizkeria amorratuak inoiz galegoak, katalanak edo euskaldunok atera gaitzake garaile.

Beldur nintzen, beraz, agian oraingoan ere horrelako zerbait ez ote zen gertatu, eta ez, noski, Unairen idazle-merezimendu objektiboez fidatzen ez nintzelako, epaimahai horien funtzionamendua eta jokabide maltzurak ondotxo ezagutzen ditudalako baizik. Eta zertarako uka, botazioen nondik norakoak jakin nahirik, galdezka ibili naiz. Bai eta erantzun zehatzak lortu ere, fidagarriak erabat.

Neure harridura eta poza zuekin erdibanatu nahi ditut, irakurleok: dirudienez, oraingoan ez da horrelako azpijokorik bat ere izan, eta, beraz, Unai txapela duintasun eta ohore osoz jantzirik darama.

Horregatik zorionak bi aldiz eman behar dizkiogu Getxoko idazle gazte bikainari. Eta horrexegatik harroago

senti gaitzke euskaldunok, guztiok ohoratzen gaituen go-lardo horrekin.

Jesusen anaiaren hilobi-kutzaz

Batzuetan kasualitateak gertatzen dira, edo kasualitate irudikoak bederen. Duela hilabete gutxi *The body* fikziozko filma ikusi genuen, Antonio Banderas protagonista duena, Jerusalemen ustekabean aurkituriko eskeleto bitxi batez, Kristoren denbora berekoa, gurutzean hildako eta buruan arantzen zaurien markak zeuzkan pertsona bate-na, aparteko norbaiti zegokion hilobi ongi landuan ezarria. Argudio gutzia Jesu Kristorena izan zitekeelakoan zetzan, eta, badaezpada ere, Elizak hori ezkutatzeko, edota juduek eta palestinarrek horrekin negoziatzeko interesen sarea nola josten zen erakusten zigun, fede eta maitasun problema pertsonal batzuekin nahasirik.

Bide beretik heldu zaigu aste honetan egunkariek eskaini diguten albistea ere. Izan ere, biziki astindu ditu bazterrak Jerusalemen aurkituriko hezur-kutxa batek, K.o. 63. urte inguruan datatuak, arameeraz daraman izkribuak: *Ya'aqob bar Yosef akhui diYoshu'a*, hau da, 'Jakob, Josefen semea, Jesusen anaia'. Berezilarien ustez, gutxi izan zitezkeen garai hartako Jerusalemen Josef izeneko aita eta Jesus izeneko anaia ukan zitzaketen Jakobak, eta are gutxiago, hilobiko izkribuen ohiko tradizioaren kontra, aitarenaz gainera, anaiaren izena ere jarriko zuketena, anaia hori erabat famatua eta oso ezaguna ez bazen behintzat. Ondorioz, jakintsu batzuek hezur kutxan ageri den Jesus hori Nazaretarra dela pentsatzen dute, hori oraingoz erabat ezin segurta daitekeen arren.

Ez da oraingoa Jesu Kristok anaiak izan zituelako kontua. Testamentu Berriak ongi ematen digu horren berri: «Ez al da hau, bada, arotzaren semea? Honen amak ez ote du izena Maria, eta honen anaiek Jakob, Josef, Simon eta Juda? Eta honen arrebak ez ote dira guztiak gure artean bizi?» (Mat, 13, 55-56), «Beste apostolurik ez nuen ikusi, Jaunaren anaia Jakob izan ezik» (Gal, 1, 19). Beraz, Jakob anaia hori, Elizen arteko euskal Bibliak, espainolari segi-

tuz, Santiago (eta zergatik ez Jack edo Jacques?) izendatzen duena, bi aldiz aipatzen da liburu sainduetan.

Hitzez hitz hartuz gero, esaldi horiek, noski, Mariaren birjintasuna, katoliko eta ortodoxoentzat dogma dena, erabat ukatzen dute, eta horregatik testuoi bi ulerkerak eman nahi izan zaizkie. Ortodoxoen ustez, Josef, Mariaren senarra, alarguna zen eta Biblian aipatzen diren seme-alaba horiek, Mariarenak barik, lehenagoko emaztearenak genituzke. Eliza katolikoaren aburuz, ordea, anaia hitza (hebreeraz eta arameeraz *akh*) inoiz lehengusu eta senide hurbilak adierazteko ere erabiltzen omen zen, eta, beraz, Jesusen ustezko anai-arreba horiek, izatez, lehengusu-lehengusinak ziratekeen. Kontua, ordea, ez dago hain garbi, eta gaurko teologo batzuek errepaz ez gutxi ezartzen dizkiete Mariaren birjintasuna nola edo hala justifikatu nahi duten eskrituren ulerkerak interesatu horiei.

Batetik, Bibliak ez diosku inon Josef lehenago alargundua zenik. Bestalde, hebreeraz eta arameeraz, testuinguru batzuetan *akh* hitza, ohiko 'anaiaz' gainera, 'senide' edo 'ahaide' ere izan zitekeela onarturik ere, gauza bera onartu behar ote zaio gero grezierazko *adelphosi* ere, hizkuntza horretan berba horrek eskuarki esangura hori eduki ez arren? Gainera, hori onetsirik ere, zergatik ulertu behar da Mateoren pasarte konkretu horretan anaiak eta arrebak egiazki lehengusu-lehengusinak direla, eta sekula ere ez, esaterako, gainerako esaldietan, adibidez Simonen anaia Andrs dela, edo Jakob Zebedeoren semearen anaia Joan dela (Mat, 10, 2-3) dioenean? Arrazoi beragatik, zergatik ez pentsa, Marta eta Maria ahizpak zirela dioenean (Luk, 10, 39), benetan elkarren artean lehengusinak zirela, edota Lazaro haien anaia ere (Joan, 11, 21) lehengusua? Bitxia litzateke, bestalde, Paulok berak ere Jakob hori Jaunaren anaia zela berriro esatea, eta ez lehengusu, hebrearrek eta greziarrek kontzeptu hori adierazteko hitz bereziak dituztenean.

Dirudienez, nahaste hau guztiau, Mesias birjina batengandik jaioko zela dioen Testamentu Zaharreko pasarte batetik heldu da, grezierazko itzulpenean gaizki ulertua gertatu zelako. Hebreerazko jatorrizko testuak (Is, 7, 14) Mesias *almah* batengandik jaioko zela dio, hau da, 'ema-

kume gazte' batengandik, Elizen arteko euskarazko Bibliak oso ongi itzuli duenez, Jesusen jaiotza aipatzean (Mat, 1, 23), grezierazko testuari segituz 'birjina' berritzuli duen arren. Honek esan nahi du, profeziaren arabera, Mesias hori ez zela aingeru edo beste munduko izaki bitxi bat izango, gure antzeko eta haragizko gizakia baizik.

Jesu Kristo jaio aurreko mende bat lehenago, ordea, Israeldik kanpoan hebrear asko bizi ziren jadanik, eta horietako anitzek beren jatorrizko hizkuntza ongi ez zekitela edo erabat galdua zutela kontuan izanda, juduek beren liburu sailduak grezierara itzultzea erabaki zuten. Horretarako, Egiptoko Alexandrian rabbi aditu talde bat bildu eta elkarren artean Hiru rogeita hamarren itzulpen famatua burutu zuten. Hor hebreerazko *almah* hitza *parthenos* gisa itzuli zuten, garai hartan berba horrek grezieraz ere 'andre gazte, ezkongabea' esan nahi baitzuen. Geroago, ordea, *parthenos* hitzak lehenago zeukan semantika esparru aski zabala urritu eta birjinaren esangura bereziagoa hartu zuen grezieraz, gure *dontzeilak* ukan duen bilakaeraren antzera, eta hortik gaineratu omen zitzaion Jesusen amari jatorrizko profezietan berez ez zeukan birjina titulua.

Horregatik guztiagatik, protestante gehienek ez eze, gaurko teologo katoliko askok ere uste dute Mariak, Jesusen gainera, beste seme alaba batzuk ere izan zituela —bost gutxienez, Mateoren pasartearen arabera—, eta, diotenez, horrek ez dakar inolako kontraesanik Jainkoak, gizakiok salbatzeko, geure irudiko Mesias bat igorri zigula sinesten segitzearen, haren ama birjina izan zein izan ez. Gogoan izan, bestalde, zelibatoa eta birjintasuna ez zirela, orain ere ez diren bezala, balio ez goretsi ez praktikatu egia judaismoko erlijio-gizonen artean.

Edonola ere, zientziak eta ikerketen aurkikuntzek lantzean behin aukera ona eskaintzen dute, oraingoan bezala, erlijioen barruan astintze eta garbi-ikuziak egiteko, beren funtsezko elementuak mendeetan zehar sineskerian oinarrituriko eta herri mailako debozio-ohituretan errealismo handirik gabe atxikiriko eranskinetatik bereiziz, hierarkia, beti bezala, aldaketak edo argitzeak herri xeheari ekar liezaiokeen eskandaluaren beldur bada ere.¶